

Mondragon Unibertsitateko 1go Foro Teknologikoa

2017/02/24

Atzo goizean Goi eskola Politeknikoko Arrasateko kanpusean Mondragon Unibertsitateko lehengo foro teknologikoa egin genuen.

Bertan, Euskal Herriko enpresa eta erakunde nagusienetako Berrikuntza eta I+G arloetako 27 ordezkari bildu genituen esperientziak eta epe ertain eta luzeko ardurak eta beharrak partekatzeko. Beraien ikuspegia oso baliozgarria zaigu gure eskeintza akademikoa eta gure ikerketa eta teknologia transferentzia programak norabide egokian bideratzeko.

Atzoko topaketa hau, zeinen bigarren edizioa datorren uztailarako aurreikusita dagoen, Mondragon unibertsitateak eta, bereziki, Goi Eskola Politeknikoak enpresen eskutik eta beraien zerbitzura bidea egiteko tradizioan eta filosofian kokatzen da, Eskolaren helburuetariko bat bait da beraien etorkizuneko beharrei erantzutea, bai teknologia eta ezagutzaren transferentziaren arloan eta baita giza baliabide gaituen hornikuntzaren arloan ere.



Mondragon Unibertsitateko 1go Foro Teknologikoko partaideak